



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

UDALBATZARRAK 2016ko ABUZTUAREN 30ean EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA

2016ko abuztuaren 30ean, Alkizako Udaletxean, arratsaldeko 19.30etan, Jon Umerez Urrezola Alkatearen Lehendakaritzapean behean aipatzen diren zinegotziak bildurik, ondorengo erabakiak hartu ziren :

ALKATEA : Jon Umerez Urrezola

ZINEGOTZIAK : Jose M^o Aranzabe Urruzola
Uxue Etxebeste Eizagirre
Jose Ramon Hernandez Cristobal
Xabier Mugika Letamendia

Bere ezin etorria azaltzen du: Onintza Gorostidi Murua eta Koldobika Jauregi Zinkunegi

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

Ondorengo gaiak aztertu eta erabaki ziren:

1. **Aurreko bilkuretako akten onespena.**
-2016ko uztailaren 26an egindako ohiko bilkuraren akta.
2. **Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
3. **Fakturak eta ordainketak.**
4. **Alkizako Basatxabal baserriaren teilatua eta fatxada eraberritzeko lanen obra baimena eskaera, J.J.S..**
5. **Beste batzuk.**
6. **Erregu, galdera eta mozioak.**

LEHENENGO PUNTUA

AURREKO BILKURETAKO AKTEN ONESPENA

- 2016ko uztailaren 26ko ohiko bilkuraren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.

Aktak Udaletxeko Iragarki Taulan eta Web orrialdean argitaratzea erabaki da.

BIGARREN PUNTUA

ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Ondoren aipatzen diren Alkatetza Ebazpenak eman direla adierazi du Udaleko Behin Behineko Idazkari-Kontuhartzaileak, bertaratuak jakinaren gainean geratu direlarik:

25/2016 Alkatetza Ebazpena, uztailaren 28koa, Secretaría de Estado de Administraciones Públicas-ek eginiko errekerimenduari erantzutea, ebazten duena.

26/2016 Alkatetza Ebazpena, uztailaren 26koa, Lehen Alkateordeari Alkate moduan ditudan funtzio eta atribuzio guztiak eskuordetzea nire ezintasun egoera mantentzen den bitartean, ebazten duena.

27/2016 Alkatetza Ebazpena, uztailaren 26koa, Alkizako udaleko 2016 urteko lehenengo seihilabeteko uraren tasaren udal errolda onartzea, ebazten duena.

HIRUGARREN PUNTUA
FAKTURAK ETA ORDAINKETAK

Ondorengo faktura zerrenda aurkeztu zen:

EBA ERKIZIA BRION	873,47
ANTONIO ELOSEGUI	9,85
GARAJE IBARRA	312,64
GARAJE IBARRA	212,23
CORREOS	4,75
SEIKIN	448,91
ARGITU	254,64
TOLOMENDI	152,50
GURDI KOOPERATIBA	64,51
IZADI LABORATEGIA	2.855,60
DIONISIO ORMAZABAL	58,71
CALPARSORO INDUSTRIAL	109,64
EUSKALTEL	67,77
EDURNE BENGOA ANSA	181,50
REPSOL	75,44
REPSOL	51,36
REPSOL	10,09
REPSOL	62,01
REPSOL	18,69
AUDAX	63,79



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

AUDAX	66,82
AUDAX	35,59
AUDAX	89,99
AUDAX	22,48
AUDAX	47,58
GILBE	133,46
EBA ERKIZIA	746,42
EUSKALTEL	70,61
CORREOS	6,00
SEIKIN	164,56
ZURIARRAIN ITURGINTZA	589,13
ELECTRICIDADA ZIZURKIL	246,69
AUDAX	518,80
AUDAX	170,76
APAIN	84,70
ANTZA INPRIMATEGIA	245,63
IBERDROLA	24,55
SOLRED	100,47
ULAHI	526,35
IZFE	1.837,23
IZFE	13,20
MOVISTAR	79,32
MOVISTAR	93,56
AUDAX	21,45
AUDAX	62,34
AUDAX	6,13
AUDAX	35,71
AUDAX	89,87
AUDAX	40,71
AUDAX	58,70
AUDAX	66,42
AUDAX	162,04
AUDAX	35,76

ERABAKITZEN DUTE

LEHENEA.- Guztira **12.381,13** eurotako kopurua duen faktura zerrendari onespena ematea.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

LAUGARREN PUNTUA

ALKIZAKO BASATXABAL BASERRIAREN TEILATUA ETA FATXADA ERABERRITZEKO LANEN OBRA BAIMENA ESKAERA, J.J.S.

Ikusirik J.J.S. jaunak eginiko eskaera, non Alkizako Basatxabal baserriko fatxadan eta teilatuan konpontze lanak egiteko obra baimena eskaera egiten duen.

Ikusirik Udal Aholkulari teknikoak, 2016ko abuztuaren 29an eginiko txostenean dioena:

ALKIZAKO "BASATXABAL" BASERRIKO FATXADAN ETA TEILATUAN KONPONTZE LANAK EGITEKO ESKAERARI BURUZKO TXOSTENA

J.J.S. jaunak, "Basatxabal" baserriko fatxadan eta teilatuan konpontze lanak egiteko baimena eskatzen du, lan hauen aurrekontua aurkezten duelarik. Aurreko dokumentazioa ikusirik, ZERA ADIERAZTEN DUT:

Aurkeztutako eskaeraren arabera, Basatxabal baserriko fatxada eraberritu, leihoak aldatu eta teilatua erreteilatu nahi da.

Fatxaden kanpo azala kapa bakarreko morterozkoa izango da eta altxaera nagusiaren behealdeak kareharrizko bukaera bat izango du. Leiho berriak gaur egun dauden bezalakoak izango dira.

Teilatuaren konponketa berriz, gaur eguneko teila eta oholak ordezkatzeko izango da, gaizki dauden gapirioak aldatzen direlarik ere.

Lan hauen aurrekontua, 51.876 €-koa da (BEZ-a gabe).

2/2006 Lurzoru legearen 199 artikulua arabera, "Lursail, etxe, eraikin eta instalazioen jabeek nahitaez dute ondasun horiek segurtasun, osasun, begirune eta apaintasun publikoko egoera onean mantentzeko eginbeharra. Horretarako, behar diren kontserbatze- eta birgaitze-lanak egingo dituzte, bertako bizigaitasuna eta benetako erabilera bermatzeko."

Alkizako Hiri antolaketako 6º artikulua, egun dauden mota guztietako eraikinen kanpoaldeko itxuraren aldaketek hirigintza lizentzia behar dutela esaten du.

"Basatxabal" baserria Alkizako lur ez hiritargarrin kokaturik dago. Arau subsidiarioen arabera eraikinak ez du katalogazio berezirik.

Alkizako lur ez hiritargarriko aldatutako araudiaren arabera, aurretik hor dauden baserriak kontsolidatuak gelditzen dira, barne eta kanpo moldaketak onartzen direlarik. Teilatuaren akabera, zeramikazko teilazkoa izango da eta fatxadak argiak, zarpiatuak, pintatuak edo harrizkoak.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Aurkeztutako lanak, aurreko baldintzak betetzen badituzte, udal baimena ematea egokia dela iruditzen zait.

**Lanak irauten duten bitartean, legeek ezartzen dituzten arauzko segurtasun neurriak gorde beharko dira.*

**Obra hondakinak, baimendutako zabortegei batera eraman beharko dira eta lanak amaitzean, eraispén-hondakinak behar bezala kudeatu izana egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dira udaletxean”*

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENENGOA.- J.J.S. jaunak eginiko obra baimena eskaera onestea, hau da, Alkizako Basatxabal baserriko fatxadan eta teilatuan konpontze lanak egiteko obra baimena ematea, betiere Udal Aholkulari Teknikoak eginiko txostenean jasotako baldintzak betetzen badira.

BIGARRENA.- Indarrean dauden Ordenantza fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

HIRUGARRENA.-Erabaki hauen berri interesdunari ematea.

BOSTGARREN PUNTUA
BESTE BATZUK

Ez dira aurkezten.

SEIGARREN PUNTUA
ERREGU, GALDERA ETA MOZIOAK

Ez dira aurkezten.

Eta aztertu beharreko beste gairik ez dagoenez, Lehendakari Jaunak bilkura 20.45 etan amaitutzat eman du eta akta hau jaso da, etorri diren guztiek izenpetu dutena eta Idazkari naizen honek, aztertu denaren benetako adierazgarria dela uste duena.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)